



EGUNKARIAREN ITXIERAREN HAMARGARREN URTEURRENA

Euskaldunon Egunkariaren 10. urteurrena gogoratzen dugu egun honetan. Egun gogorra, lurrikara askoren bizitzan, eta baita euskal kulturaren eta gizartean ere, oro har.

Gaurko egunez *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten, euskarazko egunkari bakarrik gabe utzi zuten euskaldungoa. Kaltetuen zerrenda ez da irakurleekin amaitzen, ez horixe. 150 langile kalean gelditu ziren, kale gorrian. Horietako asko gero *Berrian* integratzeak ez du gutxitzen Del Olmo epaile instruktorearen sarraskia. *Egunkaria* sortu eta indartzeko dirua jarri zuten milaka lagunena lana, akzioak eta ilusioa ezerezean utzi zituen. Euskarari normalizazio tresna paregabea kendu zion. Gizartea euskarazko komunikabide baten faltan utziz pobretu egin zuen, aniztasuna murriztu egin zuenez.

Probisionalki edo denbora batez itxi zuten *Egunkaria* hasieran. Ez da azitia izan behar hauxe jakiteko: egunkari bat ixten denean, *de facto* aldi baterako barik betiko ixten da. Baina zalantza guztiak uxatzeko, Del Olmo epaileak ixtearekin nahikoa ez eta likidatzea agindu zigun, hau da, ondasunak oro saldu eta Del Olmo berak itxierarekin eragin zituen zorrak ordaintzera behartu gintuen. Itxi zuenean, *Egunkaria* ekonomikoki sana zen, zorrik gabeko enpresa zen.

Gaurko egunez hainbat lagun atxilotu gintuzten. Eta inkomunikatu, eta torturatu, eta kartzelan sartu, eta urteak joan eta urteak etorri epaiketaren edo kondenaren jirabiran bizitzera behartu. Kalean egonik ere, kontuak blokeatuta, ondasunak bahituta, mugimenduak murriztuta bizi izan gara epaiketa bitartean. Oraindik ere badira bi lagun kontuak blokeaturik dauzkatenak eta ondasunak bahituta. Zoritxarrez, gutako askorentzat 2003. urtea ez da historia, eguneroko amesgaiztoa baizik, bigarren epaiketa baten mehatxupearan baikaude, gainera. Hamar urte eduki gaituzte atzera begira, aurrera lasaitasunez so egin ezinik, geure hoberena ezin emanda. Ez da hori, agian, itxierak izan duen kalterik txikiena.

Bigarren operatibo bat ere egin zuen Guardia Zibilak Del Olmok aginduta, Martin Ugalde Kultur Parkearen eta *Egunkariaren* enpresa taldearen aurka. Lehen operatiboan 10 lagun atxilotu zituzten, gehienak buruzagitzakoak. Bigarren operatiboan 8 lagun eraman zituzten Madrila, horien artean Parkeko arduradunak, *Egunkariaren* enpresetakoak eta Berria Taldekoak. Guztiak nahas-mahas. Gero inputatu zituenekin, guttira 25 lagun inkulpatu ditu Del Olmo epaile instruktoreak *Egunkaria* auzian, horien artean Joxemi Zumalabe, hilda ere inputatu zuena, eta Martin Ugalde, inputatuta hil zena.

Urte horietan guztietan maiz jo dugu zuengana, laguntza eske, babes bila; zuekin batera salatu izan dugu *Egunkaria* auziaren abiapuntuan eta oinarrian Aznarren gobernuaren bultzada politikoa zegoela, inpunitate osoz sekulako bidegabekeria egiten ari zirela, *Egunkaria* baino gehiago zegoela poliziaren jomugan, euskalgintzako gizarte erakundeak, alegia. Zuekin batera eskatu genuen epaiketa bertan behera uztea, artxibatzea, libre behar genuela guk eta libre *Egunkariak*.

Gu kalean gaude, baina *Egunkaria* ez. Azpimarra dezagun atzera: *Egunkaria* epaiketa gabe, kondena gabe itxi zuten. Eta hara non, itxieratik zazpi urtera Espainiako Auzitegi Nazionaleko tribunalak egurra ematen dion Juan Del Olmo epaile instruktoreari: *Egunkaria* ixtea ez zela neurri egokia izan, guztiz proportzio gabea izan zela, itxierarekin adierazpen askatasuna urratu zela eta, areago, Espainiako Konstituzioaren babesik ez duela neurri horrek.

Hala eta guztiz ere, urteetan galdetu duguna galdetuz jarraitu beharko dugu: nork ordainduko du egindako kaltea, kalte pertsonala, morala, ekonomikoa, linguistikoa, kulturala? Noizko erreparazioa? *Egunkaria* betiko itxita dago. Euskarazko lehen egunkaria horrela ixtea estigma lotsagarria da espainiar demokraziarentzat, eta guretzat gure ahulezia instituzionalaren mugarrria.

Kalte-ordainik ez dugu espero. Justizia administrazioaren funtzionamendu anormala edo akats judiziala frogatu beharko genuke horretarako. Nola, baina, erabakimena dagoen lekuan dagoelarik? Saiatu gara Estatuaren erantzukizun patrimoniala eta indemnitazioa eskatzen, baina saio ustela jo dugu. Aurtengo urtarrilaren 21ekoa da ezezkoa. Aurrera egin eta helegitea jarriko diogu, ezer lortzea zaila dela jakin arren

Ez da hori *Egunkaria* auzian zintzilik dugun gai bakarra. Orain baino lehen ere esan dugu ez gaudela *Egunkaria* auzia itxizat emateko, harik eta auzi ekonomikoa amaituta ikusi arte. Bizirik dugu auzi hori. 2010eko ekainaz geroztik Donostiako epaitegian dago. Indarkeriarekin zer ikusirik ez zuela-eta, atera zuten espainiar Auzitegi Nazionaletik, baina Dignidad y Justicia eta Fiskaltzak akusazioa mantendu egin zuten, aurrera joan da. 2011n, ordea, kasuko epaileak kanporatu egin zuen herri akusazioa, eta kanporaketa hori Gipuzkoako Auzitegiak berretsi egin zuen. Fiskaltza dugu akusatzaile bakarra orain. Bere garaian Dignidad y Justicia txostenari atxiki zitzaion, ez osorik bi akusaziotan baizik, bere salakuntza propioa landu gabe.

Auzi nagusiaren ondoan, auzi ekonomikoa anaia edo ahizpa txikitat jo izan da maiz edo beti. Baina ez da horrela. Zigor eskariak, hor, beste auzian baino askoz handiagoak dira. Dignidad y Justicia partzialki atxikiz bere garaian egindakoak orain mantentzen baditu, hona zortzi lagunontzat eskatzen direnak:

- 18na urte eta 31 milioi euro: Ainhoa Albisuri, Iñaki Uriari, Txema Auzmendiri, Joxemari Sorsi eta Joan Mari Torrealdairi. Berrit diot: bakoitzari 18 urte eta 31 milioi euroko isuna.
- 13na urte pasa eta 25 edo 21 milioi euro, hurrenez hurren, Mikel Sorozabali eta Fernando Furundarenari.
- 9 urte pasa eta 20 milioi euro Begoña Zubeizuri.
- Guztira, 128 kartzela urte eta 221 milioi euroko isuna.

Ez da, hortaz, txantxetan hartzeko auzia. Erne egotea eskatzen dizuegu. Duela bi urteko agerraldian azaldu genuen *Egunkaria* auzia abiarazi zutenak atzera Moncloan ikus genitzakeela. Eta beldur ginela. Eta gertatu egin da. *Egunkaria* itxi zuen PPren gobernuan, Aznar zen presidente eta Mariano Raxoi lehendakariorde. Fiskaltza gobernupeko organoa izanik, gure beldurrak sustrai sakonak ditu.

Hamar urteotako historiari begiratzuz gero, alderdi beltzak bakarrik ez ditugu ikusten bidean. Beltzaren gainean argia ikusten dugu, alderdi positiboak ugari. Horien artean, *Egunkariako* jendearen jarrera, amorrutik harago, itxitako egunkariari segida emanez, *Egunero* eta *Berria* sortuz. Hor izan dugu beti alboan Babes Taldea, gure errugabetasuna aldarrikatuz eta bidegabekeria salatuz, nekatu gabe. Oso gogoan ditugu, halaber, gure alde egin duten maila eta mota guztietako erakundeak, elkarteak, taldeak. Eta euskaldungoa, gizartea bera. Zenbat eta zenbat lagun eta lagunartek eskaini digun laguntza, babesa, atxikimendua, elkartasuna, denbora eta dirua, doan, 10 urteotan zehar. Mila-mila esker. Ez zaituztegu ahaztuko.

Behar zaituztegu oraindik, auzi ekonomikoa absoluzioarekin itxi arte *Egunkariaren* zauriari odola baitario.

Mila esker.

2013.02.20